

*Reda eta Netoren abenturak
Datu pertsonalak zaintzen*

Gida didaktikoa 9-11 urtekoentzat

2010 (1.a)

AURKIBIDEA

1. Fitxa teknikoa
2. Baliabidearen oinarriak
3. Hezkuntza-baliabidea ikusteko gida
 - 3.1 Ariketak eta prestakuntza saioen azalpena
 - 3.1.1. Reda eta Neto: Edabe magikoaren menpe
 - 3.1.2. Reda eta Neto: Altxorra piratengandik babesten
 - 3.1.3. Reda eta Neto: Erdi Aroko istorioa eta datu-trukea
 - 3.1.4. Reda eta Neto: Planetarteko mezulariak

BALIABIDE DIDAKTIKOAREN FITXA TEKNIKOA

Reda eta Neto: Datu pertsonalak zaintzen

www.kontuzdatos.info

1. Identifikazio datuak	<ul style="list-style-type: none">• Izenburua: Reda eta Neto: Datu pertsonalak zaintzen. Pribatutasunari eta datu pertsonalei buruzko ikus-entzunezko hezkuntza-baliabidea, 9 eta 11 urte bitarteko ikasleentzat.• Urtea: 2010eko urtarrilaren 28a.• Antolatzaileak: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (www.avpd.es), PantallasAmigas (www.PantallasAmigas.net) ekimenaren laguntzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aholkularitzarekin.
2. Proiektuaren edo baliabidearen nondik norakoak	<ul style="list-style-type: none">• Flash formatuko ikus-entzunezko zenbait animazio eta irakasleentzako gidaliburu didaktiko bat dira guztira. Gidak hainbat jarduera lagungarri eskaintzen ditu prestakuntza saioak diseinatzeko.• Hezkuntza materiala www.kontuzdatos.info web-orrialdean dago. Web-orrialde hori gazteei, nerabeei eta hezkuntza-komunitateari zuzenduta dago, eta datu pertsonalez ari garela, norberaren eta besteen bizitza pribatua babesteari buruzkoa da. Web-orrialde horretan hainbat proiektu daude eskuragarri: <i>Kontua: ... zeuk erabaki datua</i> (15-17 urte) eta <i>Teknologiak erabiltzeko nerabe eta gazteentzako eskuliburuak</i> (9-11; 12-14; 15-17).
3. Helburuak	<p>Baliabidearen helburu behinenak honakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Haurrek ikastea zein balio handia duten haien datu pertsonalak eta besteenak, batez ere bitarteko digitaletan daudenak. Izan ere, datu horien bidez, identifikatu egin ahal baitituzte, haien gaineko halako edo bestelako irudia zabal baitezakete, eta hirugarren pertsonak haiengan eragina izan dezaketen erabakiak har baitituzakete.• Haurrek bereganatzea haien nahiz besteen datu pertsonalak modu kontzientean eta aktiboan zaintzen lagunduko dieten jarrerak. <p>Helburua ez da adin horietako umeei datu pertsonalak babesteko gaitasuna emango dien ezagupen eta trebetasun asko ikastea.</p> <p>Helburua da funtsezko jarrerak ikastea, hau da, ikastea datu pertsonalek bizitza pribatuaren esparruan balio handia dutela, eta ikastea modu aktiboan eta arduratsu jokatzeko informazio pertsonala kontrolatzeko esparruan.</p>

BALIABIDE DIDAKTIKOAREN FITXA TEKNIKOA

Reda eta Neto: Datu pertsonalak zaintzen

www.kontuzdatos.info

3. Helburuak	Haurrek jarrera berriak ikastea nahi badugu, komunikatzeko haien pare jarri behar dugu ; horregatik, material honek haurren komunikazio estiloa hartzen du: pertsonaia eta ipuin klasikoaren oihartzuna duten iraupen laburreko ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen ditu, eta lineako (<i>on line</i>) eta lineaz kanpoko (<i>off line</i>) hainbat jarduera eskaintzen ditu. Gainera, familiaren parte-hartzea sustatzeaz gain, aurkikuntzaren bidezko ikaskuntza ahalbideratzen du.
4. Hartzaileak	9 - 11 urte bitarteko haurrak: IKTak eta Internet erabiltzen hasten ari direlako. Ikastetxeak: Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetarako gomendatzen dira. Familia: umeen heziketan ezinbesteko eragilea da. Haurrekin batera egiteko hainbat jarduera eskaintzen ditu.
5. Pribatutasuneko edukiak	Animazio guztiek ideia bera dute oinarrian: oso garrantzitsua dela norberari buruzko informazioa kontrolatzea eta babestea, bai eta besteen datuak ere. ANIMAZIOAK. Lau marrazki bizidun dira eta bakoitzak 2 minutu eskaseko iraupena du. Lau abenturen protagonistak Reda eta Neto dira (Izenen jatorria gaztelaniazko <i>Red</i> eta esan nahi beran duen ingelesezko <i>Net</i> hitzak dira). Abentura bakoitzak honako ideiak islatzen ditu: <ol style="list-style-type: none">1. Datu pertsonal piloa duzu, eta zure irudiak ere garrantzi handia du2. Zure datu pertsonalak zeure altxorra dira, babes itzazu3. Zure datu pertsonal guztiak ez emateko eskubidea duzu4. Zu ez zara inoren datuen jabe, baina zain itzazu zureak balira bezala. SAIOETAN ERABILTZEKO JARDUEREN GIDA. Animazio bakoitza ikusi ostean gelan egiteko hainbat gai proposatzen dira: taldean eztabaidatzeko nahiz linean (<i>on line</i>) edo lineaz kanpo (<i>off line</i>) gelan egiteko, eta aukera ematen dute benetako testuinguruan esperimendatzeko animazioen bidez helarazten diren ideiak. Gainera, familian egiteko moduko jarduera batzuk ere badituzte, lagungarriak komunikazioaren eta informazioaren teknologien esparruan haiek duten hezkuntza eginkizunaz jabetzeko eta sentsibilizatzeko; izan ere, eginkizun hori burutzeko, nahitaezkoa da haurrekin batera aritzea IKT kontuetan. WEB-ORRIALDEA. Hezkuntza-material hau hezkuntza-komunitate guztiaren eskura egon dadin, denen eskura jarri

	da pribatutasunari eta datu babesari buruzko web-orrialde honetan: www.kontuzdatos.info ; horrela, bai gelan bai gelatik kanpo erabil daiteke.
--	---

BALIABIDE DIDAKTIKOAREN FITXA TEKNIKOA

Reda eta Neto: Datu pertsonalak zaintzen

www.kontuzdatos.info

5. Pribatutasuneko edukiak	<p>WEB-ORRIALDEA. Orrialde honetan animazioak eta jarduerak ikusteaz gain, fitxa teknikoak eta gida didaktikoak deskarga daitezke.</p> <p>Hor jartzeak baditu abantailak: adin tarte bereko hurrei zuzendutako beste prestakuntza-proiektu batzuk ikus daitezke, eta beste adin tarte batzuetakoak ere bai. Horrela, irakasleak ikaskuntza-jarduera berriak egin edo konbinatu ditzake, eta abar.</p>
6. Haurrek egin behar dutena	<p>Animazioak ikustea. Animazioak ikustea jarduera harkorra da. Horren ostean, beste jarduera aktibo batzuk egiten dira, eta istorioetako mezuek taldean parte hartzeko bidea ematen dute.</p> <p>Gida didaktikoan datozen jarduerak.</p> <ul style="list-style-type: none">• talde txikietan eta linean egiteko bilaketa eta esperientzio jarduerak (haurrentzako web-orrialdeak eta sare sozialak, eta abar).• lineaz kanpoko jolas-jarduerak, datu pertsonalak erabiliz egiteko.• hausnarketa eta eztabaidarako jarduerak talde egituratuan egiteko• esperientzio-jarduerak linean, familian egiteko• hausnarketa-jarduerak lineaz kanpo, familian egiteko
7. Ikaskuntzaren testuingurua	<p>Hezkuntza formala: ikastetxeen eguneroko jardueren barruan txertatuta (tutoretzak eta abar). Irakasle batek eta ikasle talde batek hartuko dute parte.</p> <p>Hezkuntza familiaren baitan. IKTen esparruan duen hezkuntza-eginkizunaz sentsibilizatu nahi da familia, seme-alabekin batera lineako eta lineaz kanpoko jardueretan parte hartzea bultzatuz.</p>

2. Baliabidearen oinarriak

Datu pertsonalak zaintzen programaren xedea da haurren hezkuntza-premiei erantzutea, komunikazioaren eta informazioaren teknologiak erabiltzen irakatsiz, ahalik eta arriskurik txikienarekin haien bizitza pribatuarentzat.

Hezkuntza-baliabide honen beharra arrazoitzeko, ondo bi elementu hauek aurkezten ditugu labur-labur:

- hezkuntza-premia hauen sorburu den testuinguru soziala eta
- Lehen Hezkuntzako Euskal Curriculum; izan ere, bizitza pribatuaren balio positiboa eta datu-babeserako eskubidea ikasi beharra eta esparru horietan hezi beharra bertan arautzen da.

Testuinguru soziala

Hasteko, esan behar da **datu pertsonalen babesa** gai zabalago baten atal bat baino ez dela, eta gai hori bizitza pribatuaren eta giza duintasunaren babesa da .

Bizitza pribaturako eskubidea. Eskubide horrek zerikusi handia du eta oso lotuta dago norbanakoek, haien kabuz eta inor edo ezer tartean sartu gabe, jarduteko duten eskubidearekin. Norberak norberari buruzko informazioa kontrolatzeko duen eskubidea ere bada. Eskubide honen arabera, pertsona bakoitzak berari buruzko datuak hedatzeko eskubidea du. Eskubideak, ordea, baditu muga batzuk, eta estatuaren edo hirugarrenen interes legitimoak babesteko ezarritakoak dira.

Datuak babesteko eskubideak¹ pertsonen bizitza pribaturako eskubidea bermatzen du: Eta bereziki hala gertatzen da Ezagutzaren Gizartea deritzogun honetan; izan ere, beste era bateko harreman sozialak, lan harremanak, merkataritza harremanak eta abar sortu baitira, eta benetako nahiz asmatutako informazio pertsonalaren fluxuak kontrolatzea lan nekeza izateaz gain, Internetek eta bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak dakartzaten arrisku potentzialen menpe dago.

Datu pertsonalen kontrolik gabeko fluxuak honako **arriskuak** ekar diezazkieke pertsonari: pribatutasuna galtzea, norberaren irudia, ospe ona eta ohorea kaltetzea; jazarpena; kalte ekonomikoak, datuak lapurtu eta norberaren identitatea ordezkatu dutelako; eragozpenak eta trabak, norberak jaso nahi ez duen publizitatea jasotzen duelako; eta, azkenik, gehiegizko kontrola, zaintza tekniken bidez egiten diren datu-tratamenduak direla eta.

Ikusita zer nolako arriskuak jasan ditzakegun eta nolako kaltea egin dezaket, nahitaezkoa da **aztertzea ea herritarrek haien pribatutasunerako eskubideaz baliatzeko gai diren**. Datu-babesaren esparruko pertzepzio sozialaren gaineko inkestek diotenez, herritarrek ez dute mehatxurik ikusten, aldaera ekonomikoa eta iruzurrarekin eta diru-lapurretarekin lotutako kalteak

¹ Hona hemen oinarritzko arauak: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua.

tartean sartzen ez diren bitartean. Gainera, datu-babesarekin lotutako eskubideak (datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideak) apenas erabiltzen dira, herritarrek ez dituztelako ezagutzen, besteak beste.

Ziurrenik **hezkuntza-komunitatearen egoera**, eta, bereziki, familiena hor goian deskribatu dugunaren antzekoa izango da. Esan nahi duguna da, beharbada, ez dutela behar beste hausnartu IKTen gehiegizko erabilerak pribatutasunari egin ahal dion kaltearen gainean, eta ez dakitela zein erantzukizun, eskubide eta neurri hartu behar diren kontuan, IKTak era osasungarrian erabiltzeko eta norbere buruarekiko eta besteekiko errespetuz jokatzeko. Beraz, eskola-komunitate osoa informatuta eta prestatuta egon ezean, oso zaila da gazteak heztea eta trebatzea.

Era berean, kontuan hartu behar dugu **eskola-umeen eta gazteen kolektiboa** dela sare sozialetan eta komunikazio sozialeko sistema elektronikoetan parte-hartzearen ondorioz etor daitezkeen **arriskuen eta mehatxuen menpe** dagoena batez ere, oso gazte hasten baitira horietan parte-hartzen. Gainera, azpimarratu behar da **adin gabekoak egoera bereziki zaurgarrian daudela** eta babes gehiago behar dutela.

Hain zuzen ere, **Web 2.0** sistema agertu zenetik, eta batez ere, sare sozialak jaio zirenetik, adin gabekoen artean **inolako helbururik gabe gauzak elkarrekin partekatzeko ohitura berria** zabaldu da, eta komenigarria den ala ez kontuan hartu gabe egiten dute, berezko gauza bat balitz bezala. Horretaz gain, ezinbestean hartu behar da kontuan hain hedatuta dagoen **iraupen laburreko ikus-entzunezko edukien kontsumoa**. Hori frogatzen duten hainbat lan daude, eta horien arabera, YouTube da gehien agertzen den web-orrialdea.

Egoera eskas horretaz jabetu dira nazioko eta nazioarteko hainbat erakunde eta organizazio; eta, horregatik, gomendatzen dute ahalik eta modu sistematizatuenean lantzea eskolaren esparruan **IKTak arriskurik gabe erabiltzeko hezkuntza**.

2010. urtearen hasieran nabarmena da hezkuntza-premia horri erantzuna eman behar zaiola, eta **Eskola 2.0** bezalako ekimenek behin betiko bultzada eman diote, eskolaren esparruan Internet sartu dutelako ikaskuntza tresna eta baliabide gisa. Une egokia da herritarren artean pribatutasunari eta datu pertsonalen babesari buruzko kultura pizteko, eta IKTak hezkuntza-baliabide bezala erabiltzeko ohitura eta hezkuntza-eduki digitalen sorkuntza guztiz hedatzen ari direlako. *Reda eta Netoren abenturak: datu pertsonalak zaintzen dituzte* programa oso lagungarria izan daiteke eginkizun horretarako.

Datu pertsonalen babesa eta bizitza pribatuarekiko errespetua Lehen Hezkuntzako Euskal Curriculumean.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduera-ildo estrategikoetako bat da **herritarrak informatzea eta gaitzea** haien eskubideen berri izan dezaten, eta jakin dezaten haien pribatutasuna nola babestu, batez ere **arrisku egoerarik okerrenean dauden** kolektiboen kasuan.

Horregatik guztiagatik egin zen ahalegina Oinarrizko Hezkuntzako Euskal Curriculumean ² txertatzeko **errespetuaren ikuspuntua eta bizitza pribatuaren balio positiboa**.

Zentzu horretan, **ikasi behar den jarrera** berri hau honela definitu daiteke: "norberari eta besteei buruzko informazioa bizitza pribaturako eskubidearekiko errespetuz tratatzea, bai eta kontu handiz tratatzea ere Internetek eta bitarteko elektronikoen bidezko komunikazioak dauzkan arrisku potentzialak kontuan hartuta".

Portaera berri horren oinarrian zenbait balio eta jarrera daude. Era berean, balio eta jarrera horiek gaitasun-baliabideak dira, adibidez, norberaren pribatutasunaren berezko balioa, enpatia eta pertsonen egiazko eta benetako identitateek duen balioa; guztiak daude jolas gisa asmatzen diren gezurreko identitateei edo anonimatuari kontrajarrita.

Oinarrizko gaitasunen esparruan esan daiteke batez ere bik dutela zerikusirik handiena goian definitu dugun portaerarekin, eta hauek dira: **a) informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala, eta, b) gaitasun soziala eta hiritarra**.

Helburuak, edukiak eta ebaluazio-adierazleak honako **curriculumeko arlo** hauetan finkatu dira: Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren arloan eta Teknologien eta informatikaren arloan.

- Lehen Hezkuntza: **Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza** (11 urte).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: **Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza; Etika eta gizabide hezkuntza; Teknologia eta Informatika** (12 urtetik 15era, biak barne).

Osagarri gisa bada ere, Lehen Hezkuntzako 5. mailan "**Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezaguera**"ren arloan ere sartzen da datu-babesaren eta pribatutasunaren gaia.

Zentzu horretan, 3. blokeak, Osasuna eta garapen pertsonalari buruzkoak, zera dio: "(...) arrisku jokabideak saihestu eta jokabide arduratsuak eta bizimodu osasuntsua izateko eta sendotzeko helburua duten ekimenak bultzatzeko ezagutzak (...)". Puntu horrek badu zerikusia gazteek eguneroko bizitzan IKTen

² Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretua.

esparruan egiten duten norberaren eta besteen datu-zabalkundearekin. Gainera, hori egiteak gero eta onarpen handiagoa du gizartean.

Bestalde, Objektuak, makinak eta teknologiak izenburua duen 7. blokeak zera dio: "Teknologia-garapenak bizi-baldintzetan, lanean eta ingurumena eraldatzean duen eragina balioestea". IKTak bizitza pribatua eta laneko esparruan sartu izanak herritarren pribatutasuna gutxitu izanarekin oso lotuta dago puntu hori.

Atal hau bukatzeko, eta laburpen gisa, ondoko aipamen ekarri dugu ikusteko zein garrantzitsua eta aproposa den hezkuntza-baliabide hau³:

"Pribatutasunaren egungo egoerak ere kontuan hartuko dira; bereziki, teknologia elektronikoaren eta digitalaren garapenaren ondorioz sortutako egoerak. **Herritartasun kontzeptuak bere barnean hartu behar ditu gainerakoan pribatutasuna eta horri atxikitako datuen trataera errespetatzea; bai eta norberaren pribatutasunaren eta hori ez urratzearen balioaz ohartzea ere.**

Eremu pribatuaren eta publikoaren arteko oreka egokia –dagozkien ekintza eremuekin batera– izango da herritartasuna interpretatzeko gakoetako bat. Pribatutasunari dagokion eremu subjektiboa eta Giza Eskubideen unibertsaltasuna batzen ditu herritartasun horrek."

³ Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko urriaren 16ko 175/2007 Dekretua, lehen hezkuntzako **Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren irakasgaiaren sarrera.**

3. Hezkuntza-baliabidea ikusteko gida

Gida honek helburuak eta edukiak azaltzeaz gain, ikasteko hainbat jarduera ere proposatzen ditu, baliabide didaktikoaren lau animazioetako bakoitzarekin egiteko modukoak.

Animazioen **xedea da ikusizko erreferenteak izatea** eta baliagarriak izatea, **modu sinbolikoan bada ere, gogorarazteko** norberari buruzko informazioa norberak, modu aktiboan eta egoeraz jabetuz, kontrolatzea zein garrantzitsua den. Datu pertsonalak altxor gisa irudikatzen dira, sarean harrapatuta geratzeko arriskua islatzen da, datuak ikusten dira espazioan zehar bidaia luzeak egiten, eta beharrezkoak ez diren datuak eskatzen dituzten pertsonak ere agertzen dira, objektu horiei merkataritza balioa emanez, ...

Hezkuntza-programazioa dela eta, esan behar da **ikaskuntzaren xedea** ez dela ezagupenen eta gaitasunen esparrukoa, jarreraren esparrukoa baizik. Eta jarrerak eskuratzeko, ikus-entzunezko baliabideak eraginkorrak izan ohi dira, portaerak, emozioak eta ideiak ikusi egiten direlako.

Hain zuzen ere, badago balio positibo handia duen jarrera bat bereziki aditzera eman nahi duguna: **norberak kontrolatzea, modu aktiboan eta egoeraz jabetuz, norberari buruzko informazio pertsonala**. Beste era batera esanda, informazioaren gaineko erantzukizuna norberak izatea, eta ez ikustea norbere burua biktima babesgabe eta pasibo moduan.

Ikus-entzunezko lau animazioen edukiek **funtsezko ideia bera** dute, eta zera da: "Berebiziko garrantzia du norberari buruzko informazioa kontrolatzea eta babestea, bai eta inori buruzko datuak ere".

Idea horiek garatzeko, lau animazioetan Reda eta Neto izeneko neska-mutilak agertzen dira eta istorio bakoitzeko gaiaren arabera moldatzen dituzte pertsonaiak: Erdi Aroko istorioan magiarekin lotzen dira pertsonaiak, bai eta gaztelu eta zaldunekin ere; piraten mundura ere egokitzen dira, eta denboran aurrera eginez, espazioko bidaien garaietara ere bai. Bi protagonisten izenen jatorria gaztelaniatzko Red hitza eta anglosaxoi jatorriko Net terminoa dira, eta ezaugarri horien bidez, Internetekin eta sare sozialekin lotzen dira biak. Gaur egungo teknologia eta fenomeno sozial hau funtsezkoak dira komunikaziorako eta informazio trukeko.

Istorio bakoitza amets-irudi batekin hasten da. Amets-irudi bakoitzak abentura batera bidaltzen ditu bi protagonistak. Kontaketarako **ikus-entzunezko hizkera erabiltzen da, labur-labur**, mi minutu baino gutxiagoko iraupenarekin. Eszenak amaitzeko, umorea erabiltzen denez, haurrentzat erakargarria izan daitezke. Izan ere, baztertu egin da Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilerarekin lotutako mehatxuen eta arriskuen berri emateko erabili ohi diren mezuetan agertzen den ukitu dramatiko.

Erabilerari dagokionez, material honetan ez da landu bestelako hezkuntza-baliabide eta programa batzuekin batera erabiltzeko eta parte-hartzaileen premiei behar bezala erantzuteko ikaste-esperientziak garatzeko aukerarik. Hala ere, hezkuntza eragile guztiak animatu nahi ditugu horrelakoak egitera, eta, ahal

den neurrian, haien ikaskuntza-irakaskuntza arloko esperientziak besteekin partekatzen.

Esate baterako, saio bat egin daiteke hasteko, eta pribatutasunaren eta teknologia berrien gaiaren sarrera moduan erabili; eta gero, segidan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Erabiltzeko Eskuliburu Praktikoa (9-11 urte) gidako jardueraren bat aukeratu.

Ondoren, **jarduera** multzo bat eskaintzen dugu, animazio bakoitza ikusi ostean egiteko, eta prestakuntza saioetarako ere baliagarriak.

Hona hemen **jarduera motak**: batetik, *on line* edo lineako ariketak, eta, bestetik, *off line* edo gelan hurrekin egiteko ariketak. Bestalde, familiarekin egiteko ariketak ere badaude. Ariketen xedea da horiek denak sentsibilizatzea Informazioaren eta Teknologien (IKT) erabileraren esparruan duten hezkuntza-eginkizuna dela-eta; eta rol hori behar bezala gauzatzeko, ezinbestean partekatu behar dute hurrekin IKTen erabilera.

3.1. Zenbait ariketa, eta prestakuntza saioen azalpena

Saioen egitura	
Iraupena	55 minutu
Beharrezko materialak	Ordenagailua, Interneteko konexioa eta idazteko materiala
1 Hasiara (5 ´)	Hasteko, galdera ireki bat egingo zaio taldeari (saio bakoitzerako proposatzen ditugunak ikusi). Irakasleak koordinatuko du parte-hartzea. Hasiarako fase honetan ez da komeni eztabaida piztea.
2 Animazioa ikustea (10 ´)	Gomendatzen da bi aldiz ikustea. Iritzia eskatuko zaie ikasleei, zein ideia antzeman dituzten, zergatik eta abar.
3a Lineako jarduera (30 ´)	Aurreko jarduera bukatu eta gero, taldean eztabaidatuko dute. (3a ala 3b ariketa egin daiteke, bietako bat egin daiteke).
3b Lineaz kanpoko jarduera (30 ´)	Aurreko jarduera bukatu eta gero, taldean eztabaidatuko dute.
4. Azken aldiz ikustea (10 ´)	Saioa bukatzeko, animazioa ikusiko da berriro eta denen artean emandako ideiak laburtu.

3.1.1. Reda eta Neto: Edabe magikoaren menpe	
Gaia	Datu pertsonala zer den eta motak. Argazkietan, bideoetan ... jasotako irudiek duten garrantzia.
Indar-ideia	“Datu pertsonal piloa duzu, eta zure irudiak ere garrantzi handia du”
Gaiaren azalpena	Datu pertsonalak dira pertsona bat identifikatzea ahalbideratzen duten datuak: izena, abizenak, NANA, telefonoa, helbidea, posta elektronikoko helbidea, ... bai eta norberaren irudia ere. Eta askotan gertatzen da irudia izatea pertsona bat azkarrago identifikatzeko daturik aproposena. Ezagutzen ez gaituzten pertsonak identifikatu egin gaitzakete Interneten guri buruz dagoen informazioaren bitartez.
Animazioaren laburpena	Sorgin batek bere errezeta magikoen liburua du eskuartean. Errezeta horietako baten osagaiak datuak dira: izena, abizenak, helbidea, telefonoa eta abar. Informazio guzti hori batu eta nahasiz gero —batez ere argazia gehituz—, sorginak nahi duena lortzen du, hau da, protagonista biak, Reda eta Neto, harrapatzea.
Talde-eztabaidarako galderak	Zein datu mota ezagutzen duzu? <i>Messenger</i> eko helbidea datu pertsonala da? Zergatik da irudia hain datu pertsonal garrantzitsua?
Lineako jarduera gelarako	1. Pertsonaia ospetsu bat aukeratu eta ikusi ea bere bizitza pribatuari buruzko zein informazio aurki daitekeen sarean. 2. Ikusi ea pertsonaia ospetsu horren gertuko pertsonen buruzko (bikotea, familia eta abar) zein informazio dagoen eskura eta edonork topatzeko moduan.
Lineaz kanpoko jarduera gelarako	1. Ikasleak binaka jarriko dira. Ikasle bakoitzak bere bikoteari buruzko 3 datu idatziko ditu. Bitan idatziko ditu datuak, orri bat erdibitu eta erdi bietako bakoitzean. Orri erdi bat irakasleari emango diote eta beste erdia gorde, idatzitakoa ezkutatu. 2. Zozketetan egiten den bezala, orri erdiak aterako dira bana-banan, datuak ozenki irakurriko dira eta denen artean saiaturiko dira asmatzen ea gelako nori buruzkoak diren datuak. Horrela, ikusiko dute zein erraz identifika daitekeen pertsona bat zenbait daturen

bitartez, testuinguru jakin batzuetan.

3.1.1. Reda eta Neto: Edabe magikoaren menpe

Familian egiteko lineako jarduera

Ikasleak eta familiako kide batek mezu edo dokumentu bat bidaliko diote irakasleari posta elektronikoa baten bidez. Mezuan bi zerrenda jarriko dituzte: batean toki batera bertaratzen direnean (adibidez, gimnasio bateko matrikulazio-inprimaki bat egitean) bertatik bertara zein datu eskatu ohi diren jarriko dute, eta, bestean, Interneteko konexioetan edo aplikazioetan eskatzen dizkietenak.

Pertsona nagusiak bidali beharko du mezu hori, baina bera nor den agerian uzten ez duen kontu batetik (ez du erabili behar laneko kontua edo bere izen-abizenak agerian uzten dituen bestelako konturik). Mezuaren amaieran ikaslearen izena jarriko dute.

Helarazi beharreko funtsezko ideiak

Datu pertsonalak dira testuinguru jakin batean nor garen identifikatzeko balio duten datuak.

Kontuan izan behar da datu zehatz bakar bat beharbada ez dela nahikoa, testuinguruaren arabera, pertsona bat identifikatzeko. Hala ere, sareko beste lekuren batean datu gehiago badaude eta haiekin lotzeko aukera badago, balio dezakete pertsona bat identifikatzeko. Halakoetan, gure pribatutasuna urratu egin daiteke hirugarren pertsonak guri buruzko informazio hori erabiltzen badute guk jakin gabe, guri txantxa bat egiteko, barre egiteko, zere do zer lortzeko, eta abar.

Datu guztiak garrantzitsuak badira ere, irudia da, hau da, gure argazkia da ondoen identifikatzen gaituena.

3.1.2. Reda eta Neto: Altxorra piratengandik babesten

Gaia	Datu pertsonalek balio handia dute eta babestu eta kontrolatu egin behar dira.
Indar-ideia	"Zure datu pertsonalak zeure altxorra dira, babes itzazu"
Gaiaren azalpena	<p>Argi izan behar dugu datu pertsonalek balio handia dutela, eta norberari buruzko datuak kontrolatzeko joera txertatu behar dugu gure jarreraren artean.</p> <p>Gizarte global eta ireki honetan informazioa era masiboan isurtzen da, eta informazio kontrolik gabe trukatzea eta agerian jartzea oso arriskutsua izan daiteke pribatutasunarentzat, eta zenbaitetan, baita osotasun pertsonalarentzat, ohorearentzat edo irudiarentzat ere, jazarpen, mehatxu eta xantaia egoerak gerta daitezkeelako.</p> <p>Hain zuzen ere, badaude enpresak edo pertsonak, merkataritza irabaziak izateko asmoarekin, hirugarren pertsonen datuak eskuratzen dituztenak, trikimailuen eta iruzurrezko edo legez kanpoko jardueren bidez. Horretarako, besteen nortasunak ordezkatzeko dituzte, software gaiztoa erabilia (<i>malware</i>: birus troiarrak, harrak, programa espioiak ...), ordenagailuetatik datuak lapurtuz. Eta horregatik da hain garrantzitsua ordenagailuetan inor ez sartzeko eta daturik ez lapurtzeko neurri teknikoak izatea.</p>
Animazioaren laburpena	Eskolako saio batean irakaslea azaltzen ari da datu pertsonalak zaindu egin behar direla. Orduan Neto hasten da irudikatzen datu pertsonalez betetako kutxa bat babesten ari dela pirata maltzur batzuegandik eta datuak altxorra bezain baliotsuak direla. Reda ere berarekin dago itsasoak zeharkatzen. Halako batean, piraten ontzi bat ikusten duten beraiengana hurbiltzen, eta babesteko arma guztiak ateratzen dituzte. Armak kanoiak dira, eta kanoietan segurtasuneko <i>software</i> aren izenak daude idatzita (birusen kontrakoak, suebakiak).
Talde-eztabaidarako galderak	<p>Noiz eta zein egoeratan eskatu izan dizkizute zuen datu pertsonalak?</p> <p>Zergatik eskatzen dizkigute datu pertsonal piloa Interneteko web-orrialdeetan izena eman nahi dugunean? zertarako erabiltzen dituzte datuak?</p> <p>Baten bati lapurtu diote inoiz <i>Messenger</i>an, <i>Tuentin</i> edo beste web-orrialderen batean sartzeko pasahitza? Ezagutzen duzue inor? Horrelakoetan, zer gerta daiteke?</p>

3.1.2. Reda eta Neto: Altxorra piratengandik babesten

Lineako jarduera gelarako

Hurrei zuzendutako lineako lehiaketaren bat topatu eta bertan parte hartzeko zein datu mota eskatzen dituzten aztertu. Denak al dira beharrezkoak? Galdetzen edo egiaztatzen dute ea 14 urte ditugun?

Lineaz kanpoko jarduera gelarako

Egin 4 pertsonako taldeak. Talde bakoitzak honako bi zerrenda egingo ditu:

1) Zein ondorio etor daitezke pertsona batek beste pertsona bati buruzko datu asko izan, eta era sinesgarrian pertsona hori ordezkatzeko gai bada, eta pertsona hori altan ematen badu web bidezko sare sozial batean? Adibidez: jar dezake iragarki bat beste pertsona baten ordezkari eta sinesgarria izan? horrek zein ondorio ekar dezake?

2) Zein ondorio etor daitezke baten batek sare sozial batean sartzeko dugun pasahitza lapurtzen badigu eta guk jakin gabe erabiltzen edo aldatzen badu? Eta pasahitzaren bidez lortzen badu guk profil horretan gordeta dugun informazio pribatua eskuratzea?

Lineako jarduera familian egiteko

Ikasleak eta familiako baten batek mezu edo dokumentu bat bidaliko diote irakasleari posta elektronikoko baten bidez. Mezuan haurrentzako lehiaketei buruzko 3 web helbide eta hurrei zuzendutako beste 3 web helbide idatziko dituzte.

Denetan jarri beharko dira altan emateko eskatzen dituzten datuak, eta esan beharko da ea gutxienez adina aipatzen duten eta datu bilketa nola egiten duten. Horretaz gain, lege-baldintzei, erabilerari eta pribatutasunari buruzko informazioak non dauden ere esan beharko da.

Era berean, saiatu beharko dira aztertzen zenbateraino diren konfiantzakoak, jatorriari, egiazkotasunari eta asmoei buruzko jarrera kritikoa garatuz.

Erreferentzia osagarriak: www.chaval.es. Bakarrik adin gabekoentzat da. Edozelan ere, Tuentik ere ez die uzten 14 urtetik beherakoei datuak sartzeko eta altan ematen, baina ez du beti lortzen. Haurrentzako produktuekin edo telebista saioekin zerikusia duten sare sozialak eta / edo taldeak ere nahiko hedatuta daude.

3.1.2. Reda eta Neto: Altxorra piratengandik babesten

Helarazi beharreko funtsezko ideiak

Baten batek gure datu pertsonalak eskatzen badizkigu eta ez baditu 14 urte, gurasoei baimena eskatu behar die. Beraz:

- Inork ezin digu eskatu datu pertsonalik.
- Bai, ordea, aitarekin, amarekin edo tutorearekin harremanetan jartzeko datuak, nahitaezkoa delako haiekin harremanetan jartzea baimena lortzeko.

Hona hemen gure datu pertsonalak babesteko egin ditzakegun bi gauza:

- Ez idatzi eta ez eman datuak beste baten batek ikusteko moduko tokietan.
- Ordenagailua ahalik eta ondoen babestu, software gaiztoak ez dezan gure informazioa eskuratzerik izan.

3.1.3. Reda eta Neto: Erdi Aroko istorioa eta datu-trukea

Gaia Eskubidea duzu zure pribatutasuna babesteko eta daturik ez emateko, beharrezkoak ez badira.

Indar-idea "Zure datu pertsonal guztiak ez emateko eskubidea duzu".

Gaiaren azalpena Batzuetan datu pertsonalen bilketak gehiegizkoak izaten dira: zenbaitetan zerbitzu bat emateko nahitaezko baldintza izaten da datuak ematea, eta datu horien premia ez da garbi egoten; beste askotan datuak eskatzen dituztenean ez dute esaten nahitaezkoak direnik, baina zeharka eta asmo ezkutuekin eskatzen dituzte.

Kasurik larrienak izan ohi dira bereizi gabeko datu-bilketak egiten dituztenak, profilak sortzeko, eta gero profil horiek marketin elektronikoan espezializatutako enpresei saltzeko. Askotan enpresa horiek ez dute zerbitzurik eskaintzen trukean, eta iruzur egiteko amuak baino ez dira.

Horretaz gain, ohikoa izaten da datu pertsonalen tratamenduei buruzko betekizunak ez betetzea. Ez-betetzeak datuak biltzen direnean eta geroko erabileretan egiten dira. Adibidez, ez dute azaltzen zertarako biltzen dituzten datuak.

Adin gabekoen kasuan azpimarratu egin behar da ez dutela datu pertsonalik eman behar, ezinbestekoa ez bada. Edozelan ere, aitaren, amaren edo tutorearen baimena eskatu behar dute nahitaez.

Animazioaren laburpena Reda Erdi Aroan dago. Garai hartan gauzak trukatea ezinbestekoa zen biziraupenerako; eta merkataritza kontuetarako, harresiz inguratuta egon ohi ziren hiribilduetara joan behar izaten zen. Hiri barrura sartzeko, sarrerako zaindarien zerbitzuak eskatzen diote trukean Redari. Redak otzaratxo bat dauka eta bertan zenbait txanpon. Txanponek bere datu pertsonalak irudikatzen dituzte. Hasieran bat ematen die zaindariei, baina haiek gehiago eskatzen dizkiote. Orduan Neto agertzen da. Neto zaldun ibiltaria da eta lantza bat uzten dio neskari, biek batera borrokatzeko gehiegikeria hura egiten ari diren zaindari haien aurka. Gero, Reda eta Neto beste hiri batera abiatzen dira. Baina oraingoan Redak lantza aldean darama eta prestatuta dago aurrerantzean bere burua defendatzeko horrelako egoeretan.

3.1.3. Reda eta Neto: Erdi Aroko istorioa eta datu-trukea

Talde- eztabaidarako galderak

Zuen ustez zein datu dira nahitaezkoak lineako jarduera batean parte hartzeko? Adibidez, inkesta batean, lehiaketa batean edo talde batean?

Zergatik da komenigarria ezinbestekoak diren datuak bakarrik ematea?

Zuen ustez, zer egiten dute gure datuekin?

Behin edo behin irakurri al dituzue ematen dituzuen datuen gaineko erabilera eta pribatutasun baldintzak? Ulertu al dituzue?

Lineako jarduera gelarako

Hiru web-orrialdetan eskatzen dituzten datuak ikertu (aurreko saioan erabilitakoak izan daitezke), eta erabaki zein datu ez diren beharrezkoak, eta pentsatu ea zertarako eskatzen dituzten. Nahi izanez gero, jarduera hau egiteko, lineako jokoei buruzko web-orrialdeak erabil daitezke.

Lineaz kanpoko jarduera gelarako

Lau pertsonako taldeak egin eta datu pertsonal mota batzuk hautatu (identifikaziokoak, osasunari buruzkoak ...), eta pentsatu ea zertarako erabili ahal dituzten beste pertsona batzuk. Gero, zerrenda batean jaso.

Adibidez, telefono konpainia batek zerbitzuan altan emateko beharrezkoak diren datuez gain (izena, NANA, adina, kontu zenbakia eta helbidea), beste hainbat datu eskatzen dizkie bere bezeroei (anai-arreba kopurua, familiak etxean duen kotxe kopurua eta matrikula eta ea bigarren etxerik duten). Zertarako behar ote ditu telefono konpainia batek datu horiek? Eta beste enpresaren bati lagatzen badizkio? Egin dezake horrelakorik?

Lineako jarduera familiar egiteko

Ikasleak eta familiako baten batek mezu edo dokumentu bat bidaliko diote irakasleari posta elektronikoko baten bidez. Mezuan *Hotmail*, *Yahoo*, *Gmail* edo antzeko beste konturen batean doako posta kontu bat irekitzeko eskatu dizkieten datuak jarriko dituzte.

Datu bakoitza ematea aukerakoa ala nahitaezkoa den adierazi beharko da mezuan, eta ea haien ustez datu horiek nahitaezkoak diren ala ez enpresak zerbitzua emateko. Nahitaez eskatzen duten daturen bat badago eta uste badute ez dela beharrezkoa, zerrenda bat egingo dute eta bertan idatzi zein enpresarentzat edo zein jarduera-esparrutan izan daitezkeen erabilgarriak datu horiek.

3.1.3. Reda eta Neto: Erdi Aroko istorioa eta datu-trukea

**Helarazi
beharreko
funtsezko
ideiak**

Sarritan enpresek datu pertsonalak biltzen dituzte profilak egiteko, kontsumitzaileen merkatu-esparruak egiteko, eta batzuetan, zuzeneko salmenta bidez etekin ekonomikoa izateko asmoarekin ere bai.

Atzerriko lineako zerbitzuak ez daudenez gure administrazioen kontrolpean, gerta daiteke gehiegikeriak egotea esparru honetan, eta guk ezin ezer egin. Beraz, erabiltzaileok jarrera aktiboa izan behar dugu eta erne egon, eta gutxieneko betekizun etikoak betetzen ez dituztenei kasurik ez egin edo baztertu.

3.1.4. Reda eta Neto: Planetarteko mezulariak

Gaia	Beste pertsonen datuak ere zaindu egin behar dira.
Indar-ideia	"Zu ez zara inoren datuen jabe, baina zain itzazu zureak balira bezala".
Gaiaren azalpena	<p>Norbere burua zaintzea funtsezkoa da, baina baita besteena zaintzea ere, elkarbizitza eta herritartasun arduratsua nahi badugu. Bizitza pribatuaren esparruan hori hala dela frogatuta dago; izan ere, alferrik da norberaren bizitzaren esparru pribatuarekiko jarrera aktiboa izatea eta erantzukizunez jokatzeko, inguruko pertsonen arduragabekeriak bertan behera bota badezake.</p> <p>Denon ardura da lehendabizi besteak errespetatzea, eta, ondoren, beste horien pribatutasuna babestea. Komunikazio digitalari eta sare sozialei esker, erraza da inguruko pertsonak norbere esparru pribatuko gauzak jakitea edo informazioa orokorra eskuratzea. Informazio horiek esparru pribatutik ateratzen badira eta esparru publikora jauzi egiten badute, nahi ez diren ondorioak etor daitezke.</p> <p>Datu pertsonal bat edo argazki bat edukitzeagatik, ez dugu eskubiderik datua edo argazkia erabiltzeko, eta are gutxiago beste baten bati helarazteko. Norberak erabaki dezake, eta ez beste inork, norbere datuak nola tratatu.</p>
Animazioaren laburpena	Reda eta Neto planetarteko mezulariak dira eta datuak (beraienak eta beste batzuenak) garraiatzen dituzte unibertsoaren alde batetik bestera. Redak irudi batuk ere bidali nahi ditu. Lehengo, bera bakarrik agertzen den argazki bat bidaltzen du. Gero, beste bat bidali nahi du eta han Netorekin agertzen da. Netok esaten dio ez bidaltzeko. Azkenik, beste bat bidaltzea pentsatzen du. Azken argazki horretan beste bi pertsona ere agertzen dira. Argazkian berarekin agertzen direnen baimenik ez duenez, goiko paragrafoan azaldu dugun planteamendua hartzen du aintzat, eta erabakitzen ez bidaltzea.
Talde-eztabaidarako galderak	<p>Behin edo behin baten batek eman al dio beste bati edo jarri al du denen aurrean zuen daturen bat? Hori dela eta, izan al duzue arazorik? Eta argazkiren bat edo bideoaren bat?</p> <p>Zure ustez egokia al da edozeinek eskuratu ahal izatea zure datuak edo irudiak? Eta baten bat badabil horrelakoak egiten?</p> <p>Nahiko zenuke zure lagunak zu agertzen zaren irudiak jartzea sarean zure baimenik gabe? ez, ezta?</p>

3.1.4. Reda eta Neto: Planetarteko mezulariak

Lineako jarduera gelarako	<p>Jendeak beste pertsona batzuen datu pertsonalak denen aurrean erakusten dituzten tokiak edo orriak bilatu Interneten.</p>
Lineaz kanpoko jarduera gelarako	<p>Lau pertsonako taldeak egingo dira eta talde bakoitzari pertsonaia publiko ezagun baten izena idatzita duen paper bat emango zaio, baina ezkutuan. Taldekoek taldekideen izenak idatziko dituzte paperaren atzeko aldean eta irakasleari emango diote berriro.</p> <p>Gero, talde bakoitzak paper bat hartuko du ausaz (eta berea bada, aldatu egingo du). Jarduera burutzeko, gelakoan artean asmatu beharko dute (papera egokitu zaion taldekoek izan ezik; taldea paperaren atzeko aldean dago idatzita) zein den bertan jasotako pertsonaia, taldeak emandako pistekin. Pertsonaiaren izena eta abizena ezin dira esan.</p> <p>Helburua da gainontzeko pertsonaiak nortzuk diren asmatzea, hirugarrenek emandako datuen bidez, Asmatzen ez diren pertsonaiak dituzten taldeek irabaziko dute.</p>
Lineako jarduera familian egiteko	<p>Ikasleak eta familiako baten batek mezu edo dokumentu bat bidaliko diote irakasleari posta elektronikoko baten bidez. Mezuan datu pertsonalak era irekian erakusten dituzten hiru web helbide jasoko dituzte, hau da, web horietan dauden datuak zuzenean atzitzeko modukoak izan behar dira, ezelako babesik ez dutelako. Horretarako, aurkitzen duten web-orrialde bakoitzaren pantaila kapturatu beharko dute.</p>
Helarazi beharreko funtsezko ideiak	<p>Norberak erabaki behar du norbere datuekin zein tratamendu egin. Beraz, ezin dugu inoren daturik erabili, baimenik eskatu gabe. Datu edo irudi bat edukitzeagatik, ez dugu hura erabiltzeko eskubiderik.</p> <p>Oso ohikoa da argazkiak partekatzea linean sare sozialetan, eta gehienetan bertan agertzen diren pertsonen baimenik gabe egiten da. Jokaera horrek, alde batera utzita lege gorabeherak, beste pertsona batzuen pribatutasuna galtzea eragin dezake.</p>